

**K**urtso amaierara ekarri dugu azken urteotan irail bukaeran antolatzen genuen Konferentzia

Politikoa, ikasturteko balantzea itxi, egoeraren azterketa eguneratu eta Plan Politikoa ikasturte berrira egokitzeko. Horretarako, larunbat goizean Nazio Batzarra egingo dugu, hori baita hausnarketa, eztabaida eta erabaki kolektiboak hartzeko dugun urteko momentu nagusia.

Horrez gain, eta Euskal Herri osoko militanteak elkartuko garela aprobetxatuz, ostiral arratsaldean gure garaia ulertzeko solasaldiak antolatu ditugu Iratzar fundazioarekin batera. Eta larunbat arratsaldean, ildo politikoa praktikara eramateko trebakuntza tailerrak prestatu ditugu. Iazko Nazio Topaketetan ikusi genuen bezala, giro ona ez da faltako. Itxi dezagun ikasturte hau, berrirako plana prest utziz.



**Izen ematea**

partehartu.sortu.eus  
943 26 59 82

## Egitaraua

### Uztailak 15 • Ostirala

- 16:30 - 17:00 Izen-ematea  
17:00 - 18:30 Gure garaia ulertzeko gakoak  
19:00 - 20:30 Sakontze-solasaldiak:
- Munduari So
  - Zibilizazioa krisian?
  - Egungo naziogintza
  - Errepliege usaina dario

[Ostiralean lotarako lekua egongo da]

### Uztailak 16 • Larunbata

09:30 - 10:00 Izen-ematea

10:00 - 13:30 **Nazio Batzarra**

- Ikasturteko balantzea eta Plan Politikoaren ardatzak
- Hitzartze politikoa
- Nazioarteko eta Euskal Herriko lagunei aitortza-ekitaldia

14:00 - 15:30 Bazkaria\*

16:00 - 18:00 Tailerrak. Ildoa lurreratzten:

- **Sortu herrietan: zer eta nola egin?**
- Euskararen biziberritzea: jauzi berria sustatzen
- Hezkuntza-trantsiziorako aukera irekia
- Erronka ekologistari Euskal Herritik erantzuten
- Zor zaigun bizitza feminismitik borrokatzen
- Euskal Herriko estrategia sozio-ekonomikoa ehuntzen
- Nazioartegintza Euskal Estatua lortzeko bidean
- Sorturen komunikazioa herrietan: estrategia eta irizpideak
- Artibismoa: dinamika aktibista herrietan

18:15 - 19:00 Itxiera eta elkarrekin topa!

\*Bazkaria:  
Sortzaileek 10€ / Ez sortzaileek 15€ / Langabetu eta ikasleek: 5€

[Larunbatean haur txokoa egongo da]



**independentzia  
rako  
indarra**



# 5. NAZIO konferentzia

**uztailak 15-16  
Lakuntza**



## Ostiraleko solasaldiak

SOLASALDI NAGUSIA

### Gure garaia ulertzeko gakoak

Bizi garen garaia (diagnostiko kritikoa), beste mundu baten oinarriak (alternatibak) eta mundu honetatik hurrengorako bidearen gakoak (trantsizioa)... Jantzi ditzagun egunerokotasunetik haragoko betaurrekoak!

SAKONTZEKO SOLASALDIAK

### Munduari So

Gure *Munduari So* argitalpena oinarri hartuta, munduko joerak aztertuko ditugu Euskal Herritik: ordenuaren aldaketak, gerrak, ekonomia politikoa eta politika ekonomikoak, zuzenbidea, botere-arkitektura...

### Zibilizazioa krisian?

Aurrean duguna klima aldaketa edo energia krisia baino askoz ere gehiago da, koronabirusaren pandemiak era bortitzean erakutsi digunez. Zeren aurrean gaude? Nola egin aurre euskal askapen mugimenduaren logikatik?

### Egungo naziogintza

Naziometroko azterketak oinarri hartuta, zein da euskal naziogintzaren egoera? Ziklo berri batean egoteak zer egokipen eskatzen ditu aberzaletasunean, iruditerietan eta diskurtsoetan?

### Errepliege usaina dario

Ugaltzen ari diren pultsio kontserbadore, autoritario, retrotopiko eta esentzialisten aurrean ezker eraldatzaileak dituen erronkei buruz ariko gara: subjektuaz, aniztasunaz, praktikaz, bideragarritasunaz eta utopiaz.

## Larunbateko tailerrak

### Sortu herrietan: Zer eta nola egin?

Sortuk herri eta hiriburuetan dituen funtzio eta zereginak landuko ditugu modu praktiko eta dinamikoan, horretarako osatu dugun gida oinarri hartuta. Gida horrek gure eguneroko lanerako lagungarri izan nahi duen heinean, garrantzitsua da herri bakoitzetik gutxienez kide bana etortzea.

### Euskararen biziberritzea: jauzi berria sustatzen

Euskalduntze prozesuan fase berri bat ireki behar dugu. Horretarako euskaltzaleak aktibatzea eta hizkuntza politika berriak martxan jartzea ezinbestekoa da. Bi horiek sustatzeko bideetan sakonduko dugu.

### Hezkuntza-trantsiziorako aukera irekia

Lurralde bakoitzeko hezkuntza-errealitateen argazkiak partekatu (hezkuntza legea, hezkuntza ituna, PAI...) eta lekuan lekuko erronka nagusiei erantzuteko gakoak landuko ditugu.

### Erronka ekologistari Euskal Herritik erantzuten

Ezagutzen dugun mundua aldatuko duen klima larrialdiaren aurrean, Euskal Herritik eta Euskal Herrirako erantzun ekologista artikulatzea premiazkoa da. Zer ekarpen egin behar dugu Sortuko kideok?

### Zor zaigun bizitza feministotik borrokatzen

Datozen urteei begira marraztu diren erronka feministei egoki heltzeko eta indar gehiagoz aritzeko, Sorturen sare feminista artikulatzeraz eta sendotzeraz goaz. Tailer hau ez da mistoa.

### Euskal Herriko estrategia sozio-ekonomikoa ehuntzen

Krisi sozial eta ekonomikoari Euskal Herritik nola erantzun behar diogun aztertuko dugu, testuinguruaren azterketan sakonduz eta Sorturi dagozkion lanak zehaztuz.

### Nazioarteko politika Euskal Estatuaren bidean

Estatu gabeko nazioa gara. Independentzia ipar, zer nolako politika egin behar dugu nazioartean? Nola ulertzen dugu XXI. mendeko internazionalismoa?

### Sorturen komunikazioa herrietan: estrategia eta irizpideak

Nola jardun behar du Sortuk komunikazioaren ikuspuntutik herrietan? Markaz, balioez, funtzioez, borroka ideologikorako bitartekoez, sare sozialen erabileraz eta beste abarrez ariko gara.

### Artibismoa: dinamika aktibista herrietan

Dinamika aktibistaren ikaspenak oinarri hartuta, artearen eta aktibismoaren uztarketa erabili nahi dugu herrietako ekintza politikoa aberasteko. Artibismoari buruzko irizpide orokorrak partekatuko ditugu.